

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Karetxe Urrejola

*Aramaio, Araba
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Oleta auzoko Katxelena (Dukierna) baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik zaharrena. Baserriaren "Dukierna" ezizenaren jatorria azaltzen du. Aita bertakoa zuen eta ama Otxandioko Anteparaluzeta auzokoa. Gerra Zibila Oletara heldu zenekoa ondo gogoratzen du eta baita honen inguruko azalpenak eman ere. Gerraostean hasi eta 14 urtera arte ibili zen eskolan, auzoan bertan. Bizi guztia eman du baserrian, ganadua eta ardiak zaintzen. Otxandioko Mekoleta auzoko Maria Nieves Ibarrondorekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten.

Zintak

ARA-111

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-05-19
- **Iraupena:** 89 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. Lehen gaueko eskubidea ukatu kondeari

- **Erref:** ARA-111/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:00:47. **Bukatu:** 00:03:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Bestelako kontuak

Laburpena:

Oleta auzoko Katxelena baserrian jaio zen. Aramaioko Barajuen auzoan konde bat bizi zen. Kondeak herriko andreak ezkondu eta lehenengo gaua berarekin lo egitera behartzen zituen. Katxeleneko alaba batek uko egin zion. Kondeak auzitara eraman zuen emakumea, eta emakumeak auzia irabazi egin zuen. Kondearen hurrengoa dukea omen zen, eta harrezkero "Dukiarena" ere deitzen diote Katxelenari. Emakume haren ondorengoa da Pedro.

Transkripzioa

-Zela, Oleta auzuan zela dauko izena etxiak?

-Katxelena.

-Katxelena.

-Katxelena.

-Baiña atzo esan ostazun Dukiena, edo kondiena, edo zela esaten xaue?

-Bai. Hori da, hori da, lenaukuek esaten dauen moduen, hemen konde bat auen Aramaixon. Bajonen (Barajuenen). Konde bat bizi zan. Horrek berorrek obligetan zittuen henbra guztixek lehenengo gaba pasatzera berakin.

-(Senidea) Ezkon barritten. Ezkontzen [zienien].

-Ezkon berritten.

-Bai, horri erderaz esaten xako "derecho de pernada".

-E, bien. Orduen, hemeko batek, hemeko etxeko batek, negau in utsen / intzen/ hori. Ta emon utsen /emontzen/ plaittue berak honi. Ta honek in utsen /intzen/ irebazi. Kondiai.

-A, kondiari irabazi?

-Kondiai in utsen /intzen/ irebazi. Orduen, kondien hurrengokue zelan zan dukie, orduen ipini utsen /ipinitzen/ hori motioi honi etxioni, Dukiena.

-Orduen hemengo baserritarrak duke bihurtu, ezta?

-Duke bihurtu. Ta harrezkero jarraitzen dau horrek Dukiena, hori motioi, etxiena.

-Ia, ia, ia, Dukiena. Eta hemengo kondieri frente in otsan hori, emakumia zan, edo gizakumia?

-Emakumia.

-Joño. Ta hor gero juiziuak egon zien edo?

-Juiziek egongo zien, orduen denporan, esaten dauen moduen, edo esaten eben moduen aurrekuek, ta hori esaten eban oniño ba ointsu hil zan gaixoren baten esaten eban hori. Ta in utsen /intzen/ irebazi kondiei. Ta orduen, kondie baiño dukie zelan hurrengoko zeraue dan, ipini utsien / ipinitzien/ hori motioi honi etxioi.

-Anda.

-Etxekuoni, hobeto esateko.

-Ia, ia.

-(Senidea) Honi [...].

-Eta hori zenbat urte, oin dala zenbat urte izango zan edo?

-Hori ezin neixu esan nik, horixe ezin neixu esan. Urte asko derrigor izen biher.

-Eta zu, nunbaitt, emakume haren umia zara, ezta?

-E, bai ba! Haren ondorik nator ni. Haren ondorik datorrena.

-Kontxo, kontxo. Balientia orduen e...

-Bai.

-Katxelenako andria.

-Bai. Ta hori ba sarri komentau dot nik hemen, ba, jentie ba, Katxelena esan ta ez dau ulertzen ezta? Ez dau aittuten zerak eta "Joño, nungue za?" o zera ta "Dukienekue" ia hemen inguruen danak dakixe ba Dukienekuek.

-Dukiena Azkoagan be badau, ezta?

-Dukiena Azkuagan dau. Baiña hau Dukiena hau da hango zereko, etorriko zeroi.

-Eta Barajuenen nun euen konde hori, ze etxetan edo?

-E, horixe ezin neixu esan. Zeiñetan ezin neixu esan, zeñetan auen hori. Gero horren zera, horren zera, ba, gero aurrera jarraituko dutsut / jarraitukutzut/ zerien, ze horrek kondiorrek...

2. Basoan errailak jartzen

- **Erref:** ARA-111/003
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:03:28. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Barajuen auzoan bizi zen kondeak bere basoetatik Urkiolara errailak jarri omen zituen, egurra mandoak tiratutako bagoietan ateratzeko. Tantaitxueta izeneko menditik Urkiolamendira pasatzeko zubia eraiki zuten tantaiekin, Zubinagusi izenekoa, eta zubiaren gainean errailak jarri. Kantabriarrek kudeatutako zerratokia zegoen basoan jarrita, oholtzarrak eta trenbide-trabesak egiteko.

Transkripzioa

-Gero, auken hemen, auken hemen terreneno sail haundi bat kondiek. Ta horrek kondiorrek, orduko denporako gauzak, pentsaizu zenbat balore egongo zan, nik entzunikua esan biher dot /biot/ oin be ta, neuk be ta. Hor ein eban /eiban/ zerratokixe, Urkiolara karrille, Otxandixo gaiñera karrille, horko materixalak atarateko.

-Bere basotatik?

-Bero basotik. Ta horretarako, ze hektarea mordo haundixe dauko horrek, ta pentsaizu orduen zenbat kostako zan, eskuz in biher zan /bizan/ hori, gauza danok in biher zien /bizien/. Karrille montau biher zan /bizan/. Hor zerratokixe egon zan, ta badakitt oin be nun dauen ta dana. Zerratokixe egon zan lekutik Urkiolara, igoten-igoten igoten-igoten juen biher da /bida/. Orduen, han errellanuek in, karrille montau, bagonetak ipini, ha bagonetak eruen in biher zien /bizien/. Etorri beherantza samur itten zien, baiña gorantza jaso in biher zien /bizien/, kargaute.

-Lokomotoraik-eta ez euen orduen?

-Lokomotorie bai, zera, mandue, tirezeko.

-Edo idixekin [...].

-Bai. Ta beste gauza bat, hor dauen horri mendixorri bueltia hartute dauenak Tantaitxueta dauko izena. Orduen, Tantaitxueta, Urkiolamendi badakitzu zein dan, ezta?

-Bai.

-Urkiolamendire pasetako, Pol-poleko itturriko ure dator han txarku behera. Hamendi alde bateti bestera pasetako tantaixekin zubixe eindde auen erregular. Zubinausi esaten jakon. Ta haren zubixen tantaixen gaiñeti auen karrille montaute.

-Mekatxis la mar, kriston obrie, orduan.

-Handik politto-politto bueltan, ba, buelta asko dauko horrek e, zera, eruteko. [Irezelai]-edo esaten dutsiena hara zelaire urten ta handik Urkiolara auen hori karrilloi. Ta beste bat hemetik berauti, berauti eruteko, auen Otxandixoko Morgola esaten dutsien /esatetzien/ lekue, hara gaiñera. Ta hemeko bekuek eruteko, auzen idixek. Hor ibili zien montañesak erregular.

-Montañesak?

-Montañesak.

-Zerekuak? Kantabriakuak edo...?

-Bai. Kantabriakuek montañesak esaten jake kantabriakuek, ezta? Ta harek

auken zerratokixe montaute hor. Ta harek itten ebezan paguekin tabloiek.
Ta haretxakin trabiesak.

3. Basobideak eta karreteroak. Oletatik Otxandiora galtzada

- **Erref:** ARA-111/004
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Trenbide-trabesak Gasteizera idiekin eramaten zituzten. Oletan "gurtarte" bideak bakarrik zeuden, hormaz inguratutakoak. Oletako eliza ondotik Otxandiora galtzada, "oinbidia", zegoen. Zerrategia basoan zegoen, eta lana eskuz egiten zen. Basotik egurra ateratzeko bideak oso luzeak ziren.

4. Otxandiotik Oletarainoko bidea

- **Erref:** ARA-111/006
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:11:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Basoko errail-bidearen arrastoa oraindik ikusten da, errailok aspaldi ezkutatu ziren arren. Otxandiotik Oletarainoko bidea gerra aurreko urtean egin zen. Bera mutikoa zen, baina gurdietan erreka-harriak nola ekartzen zituzten gogoan du. Gerrako "abanzea" bide horretatik pasatu ziren.

5. Gerrako "abanzea" Oleta auzoan

- **Erref:** ARA-111/007
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

"Abanzea" etorri aurretik, Oletako etxeetan miliziano gipuzkoarrak egon ziren. Kurtzeta gainean tiroketa gogorak izan ziren. Oletako etxe asko suntsitu zituzten bonbardaketetan. Egun haietan berak ikusitakoak azaltzen ditu.

6. Etxeak suntsituta bonbardaketan

- **Erref:** ARA-111/009
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Etxeko aitona, bonbardaketan, kortako bazter batean gorde zen eta bizirik atera zen. Teilape baten azpiko etxe bat suntsitu zuten arren, bestea ez zuten hainbeste kaltetu. Ukuiluko txekorrak txikituta. Bonba-zuloak nonahi.

Transkripzioa

-Bueno, aurreti, hobeto esateko, harek, lehen ez dot zertu, harek, zera, Gipuzkoa aldeko [jentie] egon zanién, ba hemen gurien egon zien eta han be bai, eta hor aittejaune, alaba, aitte-alaba bigaz edo bizi zan, eta esan eutsien: "Aittejaune, bixer edo etzi bonbardio edo holako zer bat izengo balitze, jun horra ittua bazterrea!" Lehen auen hemen ohitturie, ba, sardiekin satsa etxe barruen itten zan pillue. Gipuzkoa aldien-eta hori ohitturioi...

-Nik ezautu dot.

-Neuk be bai hori. Eta esan eutsen: "Zu horra ittua bazterrea juen, sats morduen atzekaldea; etxie dana jausten bada, hortxe geldittuko zara bizirik eta". Exactamente. Etorri zan banbardieue, eta hortxe etxien aurrekaldien, honen etxetik, ba, zenbat esango dutsut, berrogeta hamar metrora, haren aurrekaldien sartu eban bonbie. Eta etxe gehixenak hemen, ba, oin aldatute dau hori be, eta zera, ha bestie, aldameneko etxie, bota ebanen erdi zerien geldittu zana zan gurie, oin semiek dauko arreglaute. Zera, gaillur bateaz, zer bi, etxe bi, ba, teillatu zeraaz, gaillur bateaz. Bai. Orduen hemetikaldekue jo-ta altxau in eban, eta bestie geldittu zan, ba, zati bat zertute, baie bastante osoik, gure aldekie. Eta ittuan auzen, kortan -guk "kortie" esaten dutsau, zueik "ittue" esango dutsezue-, eta hemetikaldeko kuartu txiki baten, korta txiki baten, auzen ez dakit biga bi ala idisko bat, ala idisko bi eta biga bat auzen. Harek zatittu in zittuen, apurtu guztiz. Eta ganauek auzen gure etxe aldea begire, horra horma begire egotie, kuartoiek handi, eta kuartoiek hemetikaldea jausi zien eta ganauok, behixok, geldittu zien bizirik kuartoi bittertietan. Eta esan dodana, ba, nik urten noan kanpoa, eta, mutikuen kontuek; oin koiñetue dana, ba, hortxe, beziñue, bestaldeko beziñue, eta aiñeketan hara zerien, eta, banoie, eta, han be, oin kurtzie dauen lekuen beste bonba-zulo haundi bat. Aldemenetik pasaute juen nintzen aurrea eta hango aittejaune -guk "aittite" esaten dutsagu, aittejaune- honako lekutik kalaberie kendu eta arbolapeien auen hildde. Aguro etxea ostea, eta, amai esaten: "Ama, Goikolako aittejaune hildde dau". "Nun?" eta "Urlixe lekutan", "Bale". Eta gure osaba, aitten anaie, juen zan horra. Gregorio euken izena horrek, eta:

"Gregorio, Gregorio!" ta "Hemen nak! Hemen nak! Kenduizek honexek atzeka... -argixe ikusten ei eban handi atzekalde partea eta- kenduizek honeik harrixok eta urtengo joat kanpoa". Harri batzuk kendu eta handixi azpitti urten eban, sats-pilo azpitti, eskiñati, kanpora, eta bizi zan urtietan.

-Bestia, berriz, beste aittajuna, garbittuta.

-Bai. Ez zan geldittu hemetiko horma bazterrik metro ta erdiko alturan be ez, ez zan gelditu etxeko horma bazterrik.

-Bete-betien harrapau eban orduen.

-Bete-betien harrapau eban hondie.

7. Bonba bat sekula-belarra ereiten

- **Erref:** ARA-111/010
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Ganbaran sekula-belar haziekin betetako zaku bat zegoen zintzilika eta bonba batek etxe osteko soroan erein zituen haziok. Pedroren etxe inguruan harrapatutako sei miliziano fusilatu ondoren, bonba-zulo batera bota zituzten.

Transkripzioa

-Pentsaizu: gabaran auen erregular sekule-bedar hazixe,–sekule-bedarra badakizu zer dan eta–. -Ez. -Trebolie. -A, guk bedar-baltza esaten xau. -A, zuk bedar-baltza esaten dutsezu? Bueno, berdin dutso, berdin dutso /berdintzo/. Bestela, pagatxie edo, badakizu zer dan? -Bai. -Bueno, ba, zera, trebolie. Kamaran zakue eskeitte, ezta?, kamaran kordel batekin zerien eskeitte, ba, etxetik harutzeko solo baten noberak ereindde letxe erein biher izen eban. Pentsaizu zelako presiñue eruen eban harek, harek zerak, e? -Osea, hazixe auen zakuen. -Zakuen. -Eta bonbiorrek in eben hazixe erein! -Hazixe erain handik etxetik fuera, atzeko soluen. Pentsaizu zelako indderra eruengo auen harek. Ta horretxek kontuok, zerien. Bai. Eta gero, ba, atzeti, badakizu. Atzeti ba, sartu zien abanzie eta ba, etorri zien zerak eta hemen behereko etxien, hortxe, tratorrak-eta dazen lekuen, ba, handikabanzie jo ebenien, ba, gixajuek martxetako zerik be ez, eta, martxau leixen orduen, akaso baten batek joko auen balan bat, dana zan balie-eta, erreka zuluena sartute eta hanka iñ leixen harek. Ba hantxe geldittu zien, ba, etxien kontrako ate kontran, eta rau! sartu zien bestiok aurrekaldetik, dozena erdixen bat hantxe atien kontra harrapau zittuen, bertantxe afusillau eta bonba-zulora. -Bota zittuen? Zeuk ikusi zeen hori? -Ikusi nik ez, baie ba, nik ikusi bertan zerien, etxien, bai. -Eta iñungo motibo barik? -Motibo barik. Preguntau be ez zer zien be. Ba, zer zien, ba, bistan auen harek, hemetikaldekuek euzenak zien, eta bestiek bestaldetik etorri zienien eta han harrapau zittuenien, ba, fuera! Ra! eta fuera. Ez dakit bost ala sei zien, hantxe lehelengo bonba-zuluena enterrau in ebezan. Haik han egongo die haik hazurrek, nunbaitten. -Eta horreik zer zien, milizianuek edo…? -Milizianuek!

8. Eskola urteak eta jolasak

- **Erref:** ARA-111/013
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Gerraostean, bederatzi urterekin hasi zen auzoko eskolan. 14 urtera arte ikasi zuen. Eskolak erdaraz ziren, baina euskaraz mintzatzeagatik ez zituzten zigortzen. "Txirikolan" (Txirikiletan) jolasten zuten asko. Frontoirik ez, baina bolalekua bazuten.</p>

9. Mutikotan ardiekin Aretxabaletara

- **Erref:** ARA-111/014
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Udaberrietan Aretxabaletako Oro auzora joaten ziren ardiekin. 10-11 urterekin hasi zen bera Orora joaten. Udan Aitzigar mendian egoten zen artaldea. Aramaion artalde asko zeuden hain terreno gutxirako, eta udaberrian batzuek alde egiten zuten. Oron udaberria goizago hasten zen. Bildotsak bertatik saltzen zituzten Aretxabaletara eta Arrasatera. Orduan, bildotsak handiagoak hazten ziren orain baino, eta gazta gutxiago egiten zen.

10. Esnea saltzea hobe gazta egitea baino

- **Erref:** ARA-111/015
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:27:49. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Hasieran eskuz eta gero prentsez egiten zuten gazta. Geroago esnea bera saltzen hasi ziren. Izarrako Pastor Vasco gaztandegiari saltzen zioten esnea. Garai hartan Oletako artzain gehienentzako esnea saltzea hobe zen gazta egitea baino.

11. Abeltzaintzaren gainbehera

- **Erref:** ARA-111/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:31:32. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

7-8 behi eta 150 ardi inguru zituzten baserrian gerra-garaian. Geroago idi pareta ere jarri zuten. Aitajauna mutikoa zela jarri zituzten etxean ardiak, eta Pedrok kendu zituen azkenak. Etxeko abeltzaintzaren gainbehera azaltzen du.

12. Gerraostean patata soro berriak

- **Erref:** ARA-111/018
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:34:09. **Bukatu:** 00:36:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Idiak etxeko lanetarako erabiltzen zituzten. Gerraostean ez zegoen ez ogirik ez

oliorik. Babarrun, esne eta okela nahikoa izaten zuten etxe koentzako. Otxandion, patata sartzeko, soro berri asko landu zituzten.

13. Errotari iruzurgilea

- **Erref:** ARA-111/019
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:36:31. **Bukatu:** 00:40:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Oleta auzoan ez zuten apenas garirik ereiten, beraz, ez zuten izaten entregatu beharrik ere. Ereiten zuten apurra jo ere eskuz egiten zuten harriaren kontra. Baina gero ezin zuten eho, errotak itxita baitzeuden. Artale berriaren orde z errota jasotako arto-irin zaharrarekin taloak egin ezinda ibiltzen zen amona.

14. Errazionamenduan "primera" mailakoak

- **Erref:** ARA-111/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:10. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean ez zegoen ez dirurik ezta jatekorik ere. Errazionamendu garaian "primera, segunda eta terzera" mailako kartilak zeuden. Primerakoak ziren gutxien jasotzeko eskubidea zutenak, eta maila horretan zegoen Pedroren etxea.

15. Argindarra beti ezagutu du, baina ura gerraostean jarri zuten

- **Erref:** ARA-111/021
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Iberduero konpainia etorri zen arte argindarra errota egiten zen. Argindarra beti ezagutu du etxean, baina sukaldean ura gerraostean jarri zuten. Baserrietan ura jartzeko izan zituzten buruhausteez mintzatzen da.

16. Oleta eta Otxandioko urak. Kloroa nahitaezkoa

- **Erref:** ARA-111/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:46:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Oletako plazan iturria jartzeko arazoak izan zituzten. Otxandiok Oletatik ura hartu zuen. Urari kloroa erantsi beharrekin batera hartu zuen Udalak uren kudeatzea. Lehen ur ona eta doakoa zuten. Oraingoa ondo ordaindutakoa da, baina ez lehengoa bezain ona.

17. Otxandio erosoago Aramaio baino

- **Erref:** ARA-111/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:46:47. **Bukatu:** 00:48:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Arropa errekan garbitzen zuten. Pedrok ez du ezagutu etxean lixibarik egiten. Aramaio aldrebes dago oletarrentzako; Otxandiora joatea errazago dute. Aramaiora lehen biderik ere ez zegoen, eta mendiz joan behar izaten ziren. Aramaioek ez omen du erakusten borondate asko Oleta auzoarekiko, baina Otxandiok gutxiago, Pedroren esanetan.

18. "Limitadua", Aramaio eta Otxandioren arteko liskarra

- **Erref:** ARA-111/024
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:48:47. **Bukatu:** 00:52:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Aramaio eta Otxandio artean badago lur-sail bat, "El Limitado", urteetan nahiko ika-mika sortu dituen. Gai honetaz mintzatzen da Pedro. Otxandiok usufuktuan hartu omen zuen lur-sail hori aspaldi, eta orain ez dio itzuli nahi Aramaiori, benetako jabeari, dirudienez. Arartekoak ere parte hartu omen du.

19. Udaleko idazkariak lur-sailen eskubideak saldu

- **Erref:** ARA-111/025
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:52:03. **Bukatu:** 00:54:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

"El Limitado"ko lur-sailak kondearenak omen ziren. Haiek erabiltzeko eskubideak, berriz, Aramaiorenak izan ei ziren, baina Udaleko idazkariak eskubideok saldu egin omen zituen, eta ondorioz Foru Aldundia lur-sailokin geratu.

20. Otxandio herriaren mugak

- **Erref:** ARA-111/027
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:58:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:

Otxandiarrek urtero egiten dute herriko mugarrietatik itzulia ("Mojonadia"). Pedoren aurreko denboretako ohitura omen da. "Limitadua"rena aitajaunaren garaikoa zelakoan dago Pedro. Abadiño eta Zeanuriko lurrak Otxandioraino bertaraino ailegatzen dira, eta "Limitadua" kenduz gero, lur barik geratuko litzateke herria. Otxandiok Bizkaiarekin eta Arabarekin dituen mugak azaltzen ditu. Otxandiarrak ez omen daude arabarrak izateko gertu.

21. Erromeriak; Barajuen auzora neska-laguntzera

- **Erref:** ARA-111/030
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:00:39. **Bukatu:** 01:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Emaztea izango zena Otxandioko erromerian ezagutu zuen. Musika bandak eta soinu-joleek ere jotzen zuten Otxandion. Aramaioko eta Legutioko jendea joaten zen Otxandioko erromerietara. Neska-laguntzera ez ziren oso urruti joaten. Behin Aramaioko Barajuen auzoko neska bati laguntzera joan zenekoa kontatzen du. Debekatuta omen zegoen zirri egitea.

22. Auzoko jaiak egunez aldatu behar

- **Erref:** ARA-111/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:03:42. **Bukatu:** 01:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Erromerietan mutilek pezeta bi ordaintzen zituzten dantza saio osoan dantza egin ahal izateko. Lehenago Oletako jaiak Kontxesi egunean izaten ziren. Eguraldi txarra egiten zuenean, gonbidatuak egun askoan geratzen omen ziren, eta abuztuko Andra Marietara aldatu zituzten auzoko jaiok.

23. Karobirik ez zuen ezagutu lanean

- **Erref:** ARA-111/032
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

<p>Idi-probarik ez, baina auzoko jaietan trontzalariak eta sokatirak izaten ziren. Harri-jasotzeak ez zuen Gipuzkoan besteko tirarik Oletan. Basomutilen kuadriletan batek jatordua prestatu, besteak trontzak zorrotzu, hark zuhaitzak inausi, besteek trontzan..., lanak banatuta edukitzen zituzten. Bere aurretik karea egiten zela dio, baina Pedroren akorduan ez da egin Oletan.</p>

24. Aitajauna "abanzeak" harrapatu zuen

- **Erref:** ARA-111/033
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:08:01. **Bukatu:** 01:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Trintxeratan eta karobi zaharretan hobiratutako soldaduak gogoratzen ditu. Aitajauna arditan zela, "abanzeak" harrapatu zuen, eta Zeberioraino eurekin joatera behartu zuten. Kendu ez zizkioten ardiekin, etxera itzuli ahal izan zen. Hamar ardi inguru galdu omen zituen.

25. Oleta auzoa nekazaritzarako para je altu samarra

- **Erref:** ARA-111/035
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:11:48. **Bukatu:** 01:14:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia zemendian (azaroan) ereiten zuten, abuztuan ebaki eta lurra landu ondoren arbia ereiten zen. Artoa ereindako lekuan, erne eta gero, babarruna ereiten zuten eskuz. Ereindako haziak ondo hartzeko lurra epeldu eta gero erein behar izaten ziren. Ortuko gauzak berandu ipiniz gero, hobeto etortzen dira.</p>

26. Izozte gogorak Oletan

- **Erref:** ARA-111/036

- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:14:39. **Bukatu:** 01:17:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Gogoan du duela hamabost urte inguru, ekainaren 11n, egin zuen izoztea. Pago-hostoak, irak eta pinuak ere erre egin omen zituen izotzak. Aramaion ez ei du sasoi horretan horrelako izotzik egiten, ezta altuera bereko auzoetan ere. Oleta auzoa 400 metrotik gora dago.

27. Auzolanean egindako lanak

- **Erref:** ARA-111/038
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:19:27. **Bukatu:** 01:21:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Garai batean auzotarrek auzolanari erantzun egiten zioten. Galtzadak egiten, bideak konpontzen etab. jarduten zuten, etxe bakoitzeko pertsona batek partu hartuta. Elizako erreteila ere egin izan ziren auzolanean.

28. Elkarri laguntzea normala zenean

- **Erref:** ARA-111/039
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:21:23. **Bukatu:** 01:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Garia igitaiz ebakitzen zuten. Jo, eskuz jotzen zuten, harik eta lastoa eta alea banatzen zituen makina etorri zen arte. Etxe bik elkarri lagunduz, egun pare batean jotzen zuten eskuz etxeko garia. Lehen auzoek elkarri laguntzea oso arrunta zen. Txerria hiltzen zenean, auzo eta senideen etxeetara eramaten zen odolkiaren bat opari gisa; ohitura hori gaur ere bizirik dago.

29. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ARA-111/040
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:24:06. **Bukatu:** 01:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Baserría » Baserríko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Pedroren lehengusu bat ibiltzen zen etxetik etxe txerriak hiltzen. Txerria hil aurretik anis apur bat gailatekin hartzen zuten. Txerria hil eta gero berakatz zopak arrautzekin, eta gainean txerriaren gibela jaten zuten. Kafea eta kopatxo bat hartuko zuten bukatzeko. Txerria zatitzen zen egunean ere afaria egiten zuten. Ilea kentzeko, txerrien azala irarekin erretzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com